



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

Gizarte Zerbitzuen Euskal
Sistemaren ereduaren inguruan
eztabaidatzen

Nerea Zubillaga-Herran

61-67 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.02.08>



Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ereduaren inguruan eztabaidatzen

Zubillaga-Herran, Nerea

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHU¹

nerea.zubillaga@ehu.eus

Laburpena

Egun, Gizarte Zerbitzuetan erabiltzen den esku hartze ereduak gero eta zalantza gehiago sortzen ditu, errealitateari eta gizarte arazoei erantzun egoki bat emateari dagokionean. Artikulu honetan, Gizarte Zerbitzuetan, esku hartze komunitarioa garatu dadin, eman beharreko hausnarketa egin ahal izateko, kontuan eduki behar diren eztabaiden gakoak azaleratu gura dira. Horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautzen duen 12/2008 LEGEA eta horren inguruan egin diren lan ezberdinak aztertu dira, perspektiba komunitario batetik, Gizarte Zerbitzuek behar duten berrantolaketa eta eredu aldaketan, kontuan izanak beharko luketen eztabaidei bide emateko.

Hitz gakoak: Gizarte Zerbitzuak, Esku hartze komunitarioa, Gizarte kohesioa eta Gizarte zibila.

Abstract

The model of intervention in the Social Services is being doubted in terms of its response to the reality and social troubles or problems. This work aims the reflection about the development of the community intervention in the Social Services, focusing on the discussions that are required to achieve this goal. The 12/2008 LAW that rules the Basque System of Social Services has been analysed together with other works related to the topic, in order to pursuit the discussion about the reorganization and change of model that the Social Services requires, all this from a communitarian perspective.

Keywords: Social Services, Community intervention, Social cohesion, Civil society.

1. Sarrera eta motibazioa

Lan hau tesiaren hasieran kokatzen dela aipatzea garrantzitsua iruditzen zait, azalekoa den lehen irakurketa bat egiten baita, sistemaren inguruan eman beharko litzakeen hausnarketa sakon horretan lagundu dezaketen azaleko gako batzuk aurkeztuz.

Artikulu honen helburua 12/2008 LEGEAREN (abenduariaren 5ekoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa) azterketa egitea da, zehazki, esku hartze komunitarioaren ikuspuntutik. Aipatutako legea osatua eta integrala den arren, ez da errealitatean, bere horretan garatzen edo aurrera eramaten.

Horretarako, Legearen berrikuspena burutzeaz gain, Arartekoak hauen egoeraren eta hobetzeko proposamenen inguruan egindako lana aztertu da eta baita, Gizarte Langileen jardute profesionalaren inguruan (Berasaluze eta Berri-Otxoa, 2008) egindako ere. Behin hori eginda, Gizarte Langintza diziplinako oinarriekin eta zehazki Gizarte Langintza Komunitarioan adituak direnen lanekin alderatu da, testuinguru honetan, esku hartze komunitarioaren inguruko hausnarketa sustatuz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) baitan, banakako eta familiako esku hartzea gailentzen den bitartean, komunitarioa nola indartu daitekeen hausnartzea beharrezkoa da. Lan honek,

¹ Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHUko bekaduna, doktoretza tesia gauzatzen, Soziologia eta Gizarte Langintzako sailean.

hausnarketa hori nola eta nondik abiatu daitekeenaren proposamena luzatuko du. Legea oinarri harturik, Gizarte Langintzaren alor praktikoena diren gizarte zerbitzuetatik, esku hartze komunitarioa garatzeko eztabaidak zeintzuk diren ikusi behar da, bertatik ere, gizarte eraldaketaren bidean, ekintza errealak gauzatzeko aukerak aztertuz. Gizarte Zerbitzuetatik, esan bezala, banakako eta familiako esku hartzea aurrera eramanaz artatzen dira herritarrak eta gaur egun, gizarte arazoak sortzen dituzten estrukturetan eragitea ezinezkoa bihurtzen da, arazo horiek eta ondorioak soilik era individual batean landu ezker eta komunitateak berak, eskaintzen dituen baliabideak kontuan hartu gabe (Rodríguez, 2015; Pastor eta Marchioni, 2016). Honen guztiaren aurrean, esku hartzeko eredu baten eta Gizarte Zerbitzuen berrantolaketaren inguruko lehen hausnarketan egitea ezinbesteko bihurtu da, Gizarte Langintzako diziplinan (Carbonero et al., 2012).

2. Arloko egoera eta helburuak

Gizarte Zerbitzuei buruzko aurreko legeei erreparatu², azken honetako berritasunen artean, bi berrikuntza nagusi agertzen dira. Batetik, EAEn, Gizarte Zerbitzuen prestazio eta zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa sustatu eta bermatzearena, hain zuzen ere, Ongizate Estatua osatzen duten bestelako sistemak bezain garatua den Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eraikiz. Bestetik, Gizarte Zerbitzuetan eta batez ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen baitan, esku hartzea ikuspuntu komunitario batetik gauzatzea. Hau da, herritarrei emandako arretan, esku hartzea berezko lurralde eta testuinguruan gauzatzeko garrantzi azpimarratzen da. Ildo horretatik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ) udal erakundeek kudeatzen dituzte eta udal bakoitzak bere OGZak ditu. Udallerriak handiagoak direnean auzo bakoitzean bana izan ohi da, bete betean ikuspegi komunitarioaren esku hartzearen helburua bete dadin.

Aipatutako bi helburu horiek, batez ere, artikulua honetan garrantzitsuena izango den bigarren helburua gauzatzeko, hainbat aipamen egiten dira legean zehar, hala ere, Arartekoko txostenean (2016), iradokizunen atalean, etengabekoak dira, esku hartze komunitarioagoa gauzatu behar diren aipamenak, izan ere, Berasazule eta Berri-Otxoaren lanean, argi agertzen baita, Gizarte Langileen jardute profesionalari erreparatu, “Gizarte Langileen artean hamarretik bederatzik beren laneko denboraren heren bat baino gutxiago eskaintzen diote komunitateko esku hartze mailari (2008: 55)”.

Hau horrela izanik artikulua honen helburuak hurrengoak dira:

1.H: 12/2008 Gizarte Zerbitzuei buruzko legearen eta adituek gaiaren inguruan egindako lanketen errebisioa egitea, Komunitateko Gizarte Lanaren ikuspuntutik aztertuz.

2.H: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan ematen den esku hartzea eredu komunitarioa izan dadin, beharrezkoa den hausnarketarako gakoak diren eztabaidak azaleratzea.

3. Ikerketaren muina eta ondorioak

12/2008 Gizarte Zerbitzuei buruzko LEGEA³, aipatu bezala, hainbat dira komunitateko gizarte langintzarentzat eta zehatzago esku hartze komunitarioarentzat klabe izan daitezkeen aipamenak.

Lehenengo tituluaren, 6. artikuluan, helburuen inguruan hitz egiten da. Nagusia, noski, herritar guztien ongizatea sustatzea da. Sinplea dirudien arren, hau ere, Gizarte Zerbitzuen baitan ematen den banakako eta familiako esku hartzearen bidez soilik gauzatzea ezinezkoa da, modu horretara, bertan artatuak diren norbanakoen ongizatean eragiteko aukera besterik ez baituzu eta ez, herritar guztienean. Konkretuagora joanez gainera, “pertsonen autonomia sustatzea; mendetasun, babesgabezi, bazterketa zein larrialdi egoerek eragindako beharrezko aurre hartu eta erantzutea eta gizarteratzea sustatzea”

² “Gizarte Zerbitzuak” maiatzaren 20ko 6/1982 LEGEA eta Gizarte Zerbitzuen, urriaren 18ko 5/1996 Legea.

³ 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

aipatzen da. Aipatutako helburu hauek aurrera eramateko mekanismoen artean, aldiz, “komunitateak Gizarte Zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketen gizarte beharrezan erantzuten parte har dezaten sustatzea, bereziki erabiltzaile eta Gizarte Zerbitzuen eremuko erakundeek, banaka, elkartuta parte har dezaten sustatzea. Hau guztia gauzatzeko, ezin bestekoa da esku hartze komunitarioa aurrera eramatea, erakundeak komunitatearekin harreman etengabea egotea.

Titulu bereko hurrengo artikuluan, hau da, 7.ean, printzipioen inguruan hitz egiten da eta guztiak kontuan hartuak izan daitezkeen arren, batzuentzat nahitaezkoa da Gizarte Langintza Komunitarioa. Esaterako, berdintasuna eta ekitatea, gizarte ekimena sustatzea eta herritarren parte hartzea bezalako printzipioak, guztiz komunitarioak dira. Zer esanik ez, prebentzioa eta integrazioa aipatzen diren printzipioak, egiturazko kausen azterketa eta lanketa planteatzen dituela ikusirik.

Esku hartze ereduaren inguruan ere, hitz egiten da “komunitatea oinarri duen eredu hautatuz: pertsonak bizi diren ingurunean garatzea da lehentasuna”. Honetaz gain, esku hartzeak nolakoa izan behar duen aipatzen denean ere, komunitarioari egiten zaio erreferentzia “Prozesu izaera du: horrek definizioz, laguntza eskakizunak gainditu eta lan esparru hezitzaile harremanezkoa ezartzen du, helburu hauek lortzeari begira: subjektuak autonomia handiagoa izatea, bizi baldintzak hobekitzeko, bere garapenean dituen testuinguru ezberdinetara egokitzea eta zailtasunak gainditzea”. Aipatutako aipamen hauek, bete betean sartzen dira lan komunitarioaren markoan.

Honetaz guztiaz gain, prestazio, zerbitzu eta antolamendu zein plangintzaz hitz egiten duen 2. tituluan ere, badago komunitarioa barne hartzen duen esparrua. 14. artikuluan aipatzen da, GZESn prestazio tekniko, ekonomiko eta teknologikoak eskaintzen direla. Prestazio bakoitzak helburu bati erantzuten diola eta prestazio teknikoek dagokienez, harreman alderdi bat izan behar dutela dio, laguntzekoa, eta beraz, ahal den neurrian, erabiltzaileen parte hartzearekin gauzatu behar dena. Honen baitan, prestazio teknikoak zeintzuk diren aipatzean, badaude komunitarioak izan behar dutenak ere, besteak beste, estimulazioa eta errehabilitazioa lantzeko esku hartzea, arlo okupazionalan esku hartzea edo heziketan zein, alor psikosozialan esku hartzea. Prestazio hauek, legeak aipatzen duen ikuspegi komunitarioarekin, hau da, gertuko ingurunean esku hartzearen ikuspegiarekin modu integral batean esku hartu nahi bada, ezinbestekoa da, komunitatearen baitan dauden eta gizarte zerbitzuetakoak ez diren baliabideekin elkarlanean jardutea, ekintza zuzenarako, baita, Gizarte Langilearen ikuspegia irekiagoa izan dadin ere.

Azkenik, legearen 3. tituluko 40. artikulua, jaurlaritzaren arduren inguruan mintzo da eta horien artean GZES baitan hauxe aurkitzen da (40.5ean): “Gizarte ekintzaren hirugarren sektorea bultzatzea, bai eta herritarren parte hartzea ere; elkartegintza bultzatzea (...)”. Hurrengo artikuluetan, udalen zein foru aldundien arduren inguruan hitz egiten da eta puntu bera errepikatzen da. Honen inguruan gehiago sakontzen da ordea, ekimen pribatuaren esku hartzearen inguruko bosgarren tituluan. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenari babesa eman behar zaiola aipatzen da eta bereziki jardura hauek aintzat hartzeko aipatzen da: pertsonak artatzeko jardura berriak proposatzen dituztenak eta elkarte sarea babesteko eta herritarren parte hartzea sustatzeko jarduerak proposatzen dituztenak. Egitura formala eta informala dutenen inguruan hitz egitean da baina zehaztasun handirik gabe. Gizarte Langintza komunitarioaren funtsezko osagaia dira, komunitatean bertan jada antolatua dagoen gizarte zibila, elkartegintza eta bestelako gizarte sarea ere.

Behin legeak egiten dizkion erreferentziak ikusita, honen inguruan Arartekoko txostenak (2016: 172-173) dioena ezagutzea ere garrantzitsua da. Gomendioen artean, esku hartzeari dagokionean, lehenengoa, komunitateko esku hartze ereduari edukia ematearena da. Aipatu bezala, teoriarik eta legean, hainbat dira esku hartze eredu honi egiten zaizkion erreferentziak, baina gero ez dute edukirik aurrera eraman eta langileen jardute profesionalan islatzeko. Honi oso lotuta aipatzen da, Gizarte Lanari beharrezkoa den garrantzia ematearen gomendioa, norberaren ongizatean ez ezik, kohesio sozialaren eta etorkizuneko kultura eta ekonomian duen eragina onartuz. Gizarte kohesioa sustatzea ere, ez da banakako zein familiako esku hartzearen bidez, gizarte zibilarekin lanean lortzen baita.

Zerbitzu eta prestazioei dagokionean, hainbat dira egiten diren gomendioak. Lehenik, lan komunitarioa (komunitate horretako harremanak eta dinamika parte hartzaileak sendotzeko xedeaz aritzea) gauzatzeko gomendatzen da, banakako lanaren osagarritzat. Aniztasuna kudeatzea, sarean lan egitea eta hurbiltasuna dira, komunitateak duen konplexutasun eta dinamismoarekin lan egiteko gakoak. Parte hartzea suspertuz, indartuz, autolaguntza sareak sortuz, beste ekimen sozialekin lan eginez, herritarren garapen sozialean eragiten duten prozesuak sustatzen dira. Era beran, bigarrenik, bitartekaritza egitearen gomendia dago. Honen xedea, gatazkak konpontzeko ibilbide alternatiboa eskaintzea eta komunitatea osatzen duten pertsonen arteko bizikidetzaren onartzea da. Modu honetara, gainera, gatazka aktiboak konpondu, hauek prebenitu eta herritarren bizikidetzaren parte hartzea sustatu daitezke eremu publikoan elkarrekiko harreman eraikitzaileak sortuz. Ildo beretik, hirugarrenik, prebentzio jarduerak areagotzea gomendatzen da, hau da, egoera galarazteko gertakari soziala gertatu aurretik esku hartzea gauzatzeko. Aipatzen da OGZ, bere hurbiltasunagatik, kokaleku pribilegiatuan dagoela egoera hauek hauteman eta artatzeko eta horretarako, ezinbestekoa dela benetako behar sozialei buruzko hausnarketa gauzatzeko, bide batez, beste bultzada bat emanik esku hartze soziohezitzaileari, zein psikosozialari. (2016:174-176).

Azkenik, kanpo eragileekin GZES eta bereziki Gizarte Langileek izan behar duten harremanaren inguruan ere hitz egiten da txostenean eta hauekin koordinazio eta elkarlana hobetzea gomendatzen da. Forma legala dena izanda ere, “gizarte ekimena denez hauen jatorria eta oinarri soziala dutenez, baita boluntarioen parte hartzea ere, legitimoak dira lankidetzaren aritzeko”. Garrantzia ematen zaie, izan ere, “dimentsio hirukoitz batean azaleratzen dira garatzen dituzten ekintzak: 1-) zaugarritasun edo ezberdintasun egoeran daudenak eskatzen dituzten informazio, sentsibilizazio, baliabide zerbitzu eta prestazioen kudeaketan; 2-) Elkarrizketa politikoan eta ekintza administratibo eta judizialean eta azkenik, 3-) salaketan, sentsibilizazioan eta gizarte kontzientziazioan” (2016: 181).

Hau guztia azterturik, onuragarria ikusten da, GZES Gizarte Langintza Komunitarioaren integrazio erreala, baina horretarako, sistemaren beraren birkonfigurazio eman behar da, bai ematen den arretari dagokionez, baita sistema beraren ikuspegian ere. Batik bat, eredu asistentzialistan erortzeko arriskutik ihes egiteko (Carbonero et al., 2012). Onuragarria ez ezik, ezinbestekoa ikusten da, gaur egungo testuinguru sozialari (beharrizan eta arrisku sozial berriak, aniztasun handia (sexu, etnia, jatorri, kultura..), ezberdintasunen areagotzea herritarren artean eta abarri, aurre egiteko ongizate sistemaren baitan, komunitateak berak duen balioa onartzea. Horretarako, nahitaezkoa da, Gizarte Zerbitzuek eduki dezaketen kutsu asistentzialek ihes egin eta jardute profesionalaren zentzua eta norabidea berrantolatzea, komunitarioa barne hartzen den eredu bat eraikiz, non bertan aurkitzen diren eragileak, gizarte transformaziorako berebiziko garrantzia duten agente bihurtzen diren (Arrieta e al., 2018).

Momentu honetan, eskera baliabidea binomioa oinarri hartuta egiten da lan Gizarte Zerbitzuetan eta oinarri hori, ez da testuinguruan etengabe sortzen diren beharrizan berriei aurre egiteko gai. Gizarte Langilea, itxarote eredu batean murgiltzen da, hau da, herritarrak eskaera egin arte itxaroten du eta maiz, ez da erraza problematika sozialei, jada gertatuak direnean, erantzun egoki bat eman ahal izatea (Carbonero et al., 2012). Horregatik, premiazkoa den Gizarte Zerbitzuen berrantolaketa, garrantzitsua da Gizarte Langilearen profil dinamiko eta batez ere, proaktiboagoa bultzatzea. Kaleko lana egiten duen, kohesio soziala sustatzen duten eta antolatua dagoen gizarte zibilarekin edo gizarte mugimenduekin batera, hauen lana potentziatuz lan egiten duen Gizarte Langile perfila (Palma eta Pacheco, 2017). Horrela, Gizarte Zerbitzuak, komunitatean bertan, aldaketa sozialaren, gizarte kohesioaren eta norbanako, zein kolektiboen eskubideen alde lan egiten duen elementu aktibotzat edukitzea izango litzateke gakoak. Horretarako aldiz, eredu aldatu eta berrantolaketa sakona emateaz gain, beharrezkoa da konpromiso politikoa eta baita tekniko ere, bai Gizarte Zerbitzuen diseinua egitean, baita egunerokotasuneko Gizarte Langileen jardute profesionalen ere.

Aurreko guztia ikusita, orain komunitarioa edo gutxienez, komunitarioagoa den GZES nola eratu daitekeen hausnartzea geratzen da. Hau da, berriro errepikatu ez dadin, paperean eta teorian

aipatutakoa, paper soilean geratu ordez, jardutera eta errealitatean aplikatzera nola eraman daitekeenaren inguruko hausnarketa sustatzea beharrezkoa da, izan ere, jardute profesionalean, badago eredu komunitarioa sortzeko erronka (Arrieta et al., 2018). Ondorioz, hasi berri den tesiarekin, eredu sortzea da asmoa, Gizarte Langileei jardute profesionala era komunitario batean eta Gizarte Langintza Komunitarioaren bitartez, nola burutu dezaketenaren inguruko planteamendu bat aurkeztea. Baina horretarako, garrantzitsua da, lehenengo, beharrezkoa den hausnarketa sakon horretan lagunduko duten, perspektibaren inguruko aldaketa txiki batzuentzako gakoak eta eztabaidak eskaintzea.

4. Etorkizuna

Aurreko atalen aipatutako eredu berriaren gogoetaren baitan, hainbat oinarrizko eztabaida planteatu behar dira, komunitarioagoa den eredu eraikitzeke asmoz sortutako hausnarketa elikatzeke. Lau eztabaida nagusi planteatzen dira, bata bestearekin guztiz lotuak, noski.

Lehenik eta behin, Maslowen beharizanen piramidearen baitan, behar fisiologikoen ondoren aurkitzen den segurtasun, ongizatearen beharra asebetetzeko, Esping Andersenek (1993) aipatzen du badagoela triangelu bat, *Welfare triangle*, hain zuzen ere. Triangelua ongizate estatuak, familiak eta enpleguak osatzen dute eta hiru elementu horiek dira, beraz, norbanakoari ongizatearen edo segurtasunaren beharizana asebetetzeko lain. Ongizate Estatuak, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak eta abar eskaintzen ditu; enpleguak berriz, iturri ekonomikoa, estatusa edo maila eta familiak aldiz, egonkortasuna, afektua edo gertutasun emozionala. Orain artean, eredu honekin funtzionatu da, baina testuinguruan eman diren aldaketak direla eta, (Ongizate Estatuaren murrizketa⁴, enpleguaren prekaritatea eta kalitate eza eta familia eredu eta osaketan aldaketak⁵) beste oinarrizko eskema baterantz joan behar da. Triangeluaren hiru elementuak ongizate eta segurtasun iturri bezala zuten presentzia jaisten doan heinean, beste agente batzuk agertzen dira triangeluaren planteamendutik haratago joatera behartuz, besteak beste, gizarte kohesioaren, zein, herritarren eskubide zibil, sozial, politiko eta oinarrizkoen alde lan egiten duten agenteak daude, hau da, gizarte zibil antolatua. Asko dira, formatu horretan, laguntza sare bezala jokatzeko dutenak eta herritarrei, modu batera edo bestera segurtasuna eskaintzen dizkietenak, izan norbere eskubideen defentsan egin duten lanagatik edo barnean zaudenean parte izateak eskaintzen dizun segurtasun emozionalagatik. Honenbestez, badago Gizarte Langileek beraiei jardutean, gainerako beste hiru elementuak hartzen dituzten bezala, kontuan hartu behar duen beste figura garrantzitsu bat, aliatu bezala joka dezakeena, dudarik gabeko lan komunitarioa bultzatuz. Baina lehenik eta behin, garrantzitsua da planteamendu hau azaleratu eta eztabaidatzea (Rodriguez, 2014 ; Pastor eta Marchioni, 2016).

Honi guztiz lotua dator bigarren eztabaida, 12/2008 LEGEAn etengabe aipatzen den gizarte ekimenaren ingurukoa. Garrantzitsua izaten da horrelakoetan, kontzeptua berarekin esan edo barne hartu nahi dena ondo definitu eta zehaztea. Legean zehar, maiz aipatzen dira hirugarren sektorea eta baita irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, baina ez da zehazten bertan kontuan hartutakoa.

⁴ Krisiarekin gauzatu diren murrizketez gain, Fantovak aipatzen du: “Ongizate estatua martxan dagoen herrialde guztietan sistema krisian dago, izan ere, estatuak ez dira gai, egestura demografikoan, zein gizarte beharizanetan ematen diren etengabeko eraldaketei erantzuna emateko gai” (2014: 103).

⁵ Familia izan da orain artean, ongizatea eta segurtasuna eskaintzeko triangeluaren elementu garrantzitsuenetakoa (familia aipatzen da, baina, gehientsuenetan emakumearen gain egon diren lanak dira). Eremu geografiko bakoitzean, elementuetako bakoitzak indar eta garrantzi ezberdina du, baina Europa hegoaldeko estatuetan “familiak” beti izan du presentzia handia, beharizan sozialak edo ongizatea eskaintzerako orduan. Hori, ekonomikoki babestuz edo etxebizitza luzaroan bermatuz ikus daitekeen arren, batik bat, zaintzaren ildoan gertatu da, besteak beste, haurrak edo adineko pertsonak zaintzerako orduan. Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, hegoaldeko eremuetan, baliabide publikoak erabili ordez, “familiak” bere gain hartu izan du zaintzaren pisua, etxeko emakumeen bidez. Orain ere, horrela den arren, hau da, orokorrean emakumeen gain jartzen diren lanak izanik ere, emakumeak lan karga bikoiztu eta lehengoaz gain, lan merkatuan emakumeen presentzia handitzen doan heinean, zaintzaren inguruko eta familia barneko rolen eta eginkizunen inguruko aldaketa ematen ari da (batez ere, emakumeek horretarako erabiltzen dituzten ordu kopuruetan), “familiak” triangelu honetan betetzen zuen funtzioa jaitziz (Arrieta et al., 2018).

Horiekin ordea, etengabeko elkarlana sustatzeko iradokizuna egiten du legeak eta hirugarren sektoreren kasuan, gizarte zerbitzuen baitan integratzeko ere aipatzen da, publikoki eskaintzen ez diren baliabideak eskaintzeko, besteak beste. Aurreko eztabaidan aipatutakoa ikusita, gizarte ekimena aipatzean eta soilik, bi eremu horiek (hirugarren sektorea eta irabazi asmorik gabeko ekimena) barne hartzean, motz geratzen da. Badago, bi definizio horietan kabitzen ez den gizarte ekimena, aurrez aipatu dugun bezala, gizarte kohesioaren eta herritarren eskubideen defentsan lan egiten duena eta GZES ko langileen eta batez ere, OGZ etako Gizarte Langileen aliatu izan beharko lukeena. Formula ez den edo hobe esanda, “formalki” eratuta ez dagoen gizarte ekimeneko eragileak ere kontuan hartuak izatea nahitaezkoa da, ikuspegi komunitarioa duten OGZak aurrera eramana ahal izateko, baita GZESren ereduaren aldaketarako. Fantovak ere (2014), horrela dio, hain formalak ez direnak ere, badaudela aipatuz. Eztabaida beraz, legean aipatzen den eskema zurrun horrek errealitatearen ikuspegi hankamotza eskaintzen duenarena da, gehien bat, OGZetatik Komunitateko Gizarte Langintza burutu gura bada, finean, auzoan edo lurraldean egoten diren eragileak, gehientsuenetan deskribatu den formatukoak izaten direlako.

Hirugarren eztabaida, ildo beretik joanez, instituzioa eta gizarte zibil antolatua norabide berean eta elkarrekin lanean jartzeko moduen ingurukoa da. Aipatutako bi eztabaidak aurrera eramateko, beharrezkoa da, erakundeek (baita, bertan jarduten duten Gizarte Langileek ere) eta gizartearen eraldaketaren bidean lanean ari diren eragileen eduki dezaketen harremanaren inguruan hausnartzea (Pastor eta Marchioni, 2016). Kasu honetan, teoriarik, helburuak berdintsuak diren arren, ekiteko eta lan egiteko formak izaten dira maiz, ezberdintasun nabariak sorrarazten dituztenak. Honen aurrean, triagulazioaren planteamendua mahaigaineratzen da. Kasu honetan, behin helburuak berdintsuak direla bermatzean, herritarrak, mugimendu sozialak edo eragileak eta instituzioak, kasu honetan GZES eta bereziki, OGZak norabide berean joatea eta hauek arteko elkarlana bultzatzea izango litzake, gizarte eraldaketarako bidean lankidetzara eta kooperazioa sustatuz (Palma eta Pacheco, 2017). Ezberdintasunak nabariak diren arren, komuna dena bilatu eta oinarrikoenean bada ere batera jardutea garrantzitsua da, gizarte kohesioa bilatzeko eta behar gehien izan dezaketen pertsonak eta gehien bat, hauen baliabideak, modu integral batean suspertu ahal izateko. Honek, testuinguruan, hau da, norbere hurbileko komunitatean komunitarioa den lan integral bat egitea bermatuko du, auzotarren eta herritarren bizitzetan, era transbertsal, baina positiboan eraginez. Kontua ez da publikoa dena edo instituzionala ordezkatzeko, baizik eta erakundeek ere, gizarte mugimenduek duten aldaketa kolektiboaren ardurak, bere gain hartzea, oinarrikoenean baldin bada ere eta horrela, komunitatea, publikoaren osagarria izatea.

Azkenik, eragin beharreko testuinguru eta formatuaren inguruko eztabaida da planteatzen dena. Komunitatean adituak diren autoreek diote, askotan, auzoa izaten dela komunitateari lurraldea eskaintzen diona. Hau da, auzoa handiegia ez bada, hirietan auzoa izan daitekeela komunitateari lurralde delimitazioa eskaintzen diona eta herri txikien kasuan berriz, herria bera izan daiteke komunitatea, betiere, delimitazioaren kontuari behar baino garrantzi gehiagorik eman gabe. Hori baino garrantzitsuago bihurtzen da, komunitatean nola eragin jakitea, hain globalizatua den gizartean, alegia. Pastorren ustez (2014, 2015), egun, errealitate lokalen galera bat ematen da sare globalen aurrean eta hori politikan, kulturean, ekonomian eta bizitzako aspektu guztietan antzematen da, guk ezezagunarekin, urrun dagoenarekin lotura eginez, gertukoarengandik urruntzen garen bitartean. Hala ere, argi esaten du, errealitatearen ikuspegi globalizatua, bertan, hau da testuinguru lokalean eraikitzen dela, beraz, deseraiki ere bertan egin daitekeela. Hori horrela izanik, ukiezina dena (baloreak, kontzientzia, solidaritatea, bertako kultura...) indartzera deitzen du, horien bitartez gero, globalizazioak dakartzan eragin gaiztoak arindu eta “kontrolatzen” laguntzeko eta baita, kapital sozialaren eta komunitatearen gainbeheren aurrean lan egiteko ere. Beraz, komunitatearekin lan egiten denean garrantzitsua da, norbanakoengana, gizarte zibilarengana heltzea. Horretarako, gaur egun ezinbestekoa da, makroa eta mikroa, globala eta lokala, bi errealitate ezberdin ez direla ohartzea, baizik eta errealitate beraren bi dimentsio. Ondorioz, adituak diote, ezinbestekoa dela pentsamendu

globalarekin esku hartze lokalak planteatzea, gizartea arazoak irauli eta lan integral bat egin ahal izateko (Pastor, 201).

5. Erreferentziak

Ararteko (2016): *Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak*, Ararteko, Gasteiz.

Arrieta, F.; Izagirre, A.; Segú, M. eta Zuñiga, M. (2018): “La comunidad al rescate: algunas reflexiones sobre las políticas estatales de activación comunitaria en Europa”, *ZERBITZUAN*, 65, 5-18.

Berasaluze, A. Berri-Otxoa, K. (2008): *Gizarte Langintzaren jardute profesionala gaur egun*, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gizarte Langintza diplomadunen elkargo ofiziala, Gasteiz.

Carbonero, M.A.; Caro, F.; Mestre, J.M; Olives, M.A. eta Socias, C. (2012): “Reconceptualizando los Servicios Sociales. Recuperar el Trabajo Social Comunitario como respuesta al nuevo contexto generado por la crisis”, *Documentos de Trabajo social*, 51, 9-27.

Esping-Andersen, G. (1993): *Los tres mundos del Estado de Bienestar*, Institució Alfons el Magnanim, Valentzia.

Fantova, F. (2014): *Diseño de políticas sociales. Fundamentos, estructuras y propuestas*, CCS Editoriala, Madril.

Palma, M. eta Pacheco, J. (2017): “El trabajo social desde la perspectiva de las fortalezas: buenas practicas para la transformación social”, *Interacción y perspectiva*, 7(1), 25-35.

Pastor, E. (2014):

_____. (2015): *Trabajo Social con comunidades*, Universitas S.A, Madril.

Pastor, E. eta Marchioni, M. (2016): “Trabajo social en barrios: Sistematización y visibilizando retos y dilemas”, *Servicios sociales y política social*, 112, 10-14.

Rodriguez, M. (2014): “Ciudadanía, comunidad, municipio y redes sociales: La fuerza de lo imprevisto”, *Luisada. Intervencion social*, 40, 125-142.

_____. (2015): “Ciudadanía y participación: conceptos y realidades en Trabajo Social Comunitario”, *Azarbe*, 4, 5-12.

6.Eskerrak

Lan hau, Eusko Jaurlaritzak doktoreareko beka programaren baitan kokatzen da.